

Idazle bat baino askoz ere gehiago

Bere literatur ibilbidea aztertu eta errepasatu zuen Txillardegik Donostian

Donostiako Udal Liburutegian bere obraz mintzatu zen herenegun inularrean Jose Luis Alvarez Enparantza 'Txillardegik' idazle donostiarra, 'Bertako idazleekiko topaketak' zikloaren barruan. Joxe Austin Arrieta mintzatu zen hizlariaren aurretik, Txillardegik aurkeztu eta laudatu.


Juan Luis Zabala / Donostia

DONOSTIAKO Udal Liburutegiko Bertako idazleekiko topaketak zikloan parte hartu duten idazle zerranda errepasatuz hasi zuen hitzaldia Txillardegik. Hiru sail nagusitan banatu zituen zerrandako 18 idazleak: «idazle eta kazetari espainiarrak» (Fernando Savater eta Raul Guerra Garrido), erdaraz idazten duten «euskal herritarrek» eta «euskal idazleak».

Octavio Pazen hitzak lagungarri hartuz —hizkuntzak definitzen du, eta ez idazlearen jatorriak, testua zein literaturatutakoa den Nobel saridunaren ustez—, «euskal literatura euskaraz egiten den literatura» dela esan zuen Txillardegik.

Lizardiren hitzak bereganatuz, idazlea «erdi beharrak» definitzen duela uste du Txillardegik. «Hori sentitzen ez duenak, idatziko du beharbada, baina ez da idazlea izango».

Idazleak, ordea, galdera bati erantzun behar dio idazten hasi aurretik: zein hizkuntza erabili? «Salamanca edo Limoges-en ez, baina hemen, erdi beharra izanda ere, automatikoki sortzen da galdera hori. Ni idazten hasi nintzanean, 1950 inguruan, arazo berbera genuen. Francok agintzen zuen eta ez zen ia-ia ezer argitaratzen euskaraz. Nik ez nuen hala ere arazorik izan aukeratzeko. Idaztekotan, erdi behar hura bideratzekotan, euskaraz egiten behar nuen, nire hiz-



Joxe Austin Arrieta aurkeztu zuen Txillardegik hitzaldiaren aurretik.

MANU MUJICA

kuntza eta nire herriaren hizkuntza zelako».

'Mekaguen Nietzsche' eta 'Mekaguen Kafka' • Soldadutza egitea 1956an egokitu zitzaion Txillardegiri. «Ni agurtzeko Mekaguen Nietzsche esaten zidaten lagin batzuek, eta Mekaguen Kafka beste batzuek. Horrek erakusten du zer joera eta zer zaretasun nituen orduan».

Kafkaren balio literarioak zitzaizkion erakargarri garai hartan Txillardegiri, baina, horretaz gain, bazuen interesik idazle txekiarrak euskararen arazoaz kezkatutik zegoenarentzat ere. «Gurasoen aldetik judua zen Kafka, eta Pragako giroa ikuspuntu horretatik ikusten zuen. Txekiarra izanik, eta txekieraz ongi zekiari, hala ere, amak, edo bi gurasoek, alemanen mul-

tzora inguratu zuten, eta Kafkak alemanez idazten zuen. Garai hartan juduak gutxiengo ziren Pragan, eta Kafkak sumatzen zuen ez zela interesatea judu agertzea. Kafkatarren beldurrak ez ziren zozokeriak, gero ikusi zen bezala. Kafkak bazuen, beraz, nortasun arazoa, ezkutatu beharra, bere burua zen bezala agertu ezina. Eta txekierari ere horregatik egin zion uko, Rilkek bezala».

50eko hamarkadan «horrelako zerbaitetan ginen hemen», Txillardegiren ustez, eta ez zen bature erraz eta erosoia izan euskararen hautua egitea.

«Garai hartan euskara literatur tresna gisa erabiltzea zalantzan jartzen zen. Gabriel Arestik ere arazo bera izan zuen, eta bilbotarra izanik ere euskaraz idaztea garai hartan benetan gauza harri-garria zen», erantsi du Txillardegik.

Erdi beharrak bultzatuta idaztea erabaki eta euskararen hautua egin ondoren, hirugarren galdera bati egin zion aurre Txillardegik: zertaz idatzi? Federico Krutwigen hitzak gogoratuz, garai hartako diglosia ekarri zuen gogora hizlariak: «Korta sunda» zerion euskarari. «Horren aurka euskara kultur munduan sartu, hiritartu eta kaletartu egin nahi izan genuen. Hau ere orain segurutzat ematen da, baina garai

hartan zalantzak zeuden horretaz ere».

Kierkegaardi buruzkoa izan zen bere lehendabiziko lana • Horregatik, ez da harrizketa Txillardegiren lehen lana Soren Kierkegaardi buruz izatea. «Existenzialismoa oso garrantzitsua iruditzen zitzaigun». Kierkegaardez gain, Miguel Unamunokoa eta Jean Paul Sartre izan ziren Txillardegirengan garai hartan eragin handia izan zuten beste bi idazle.

Knut Handsumen *Ogia* edo *Gosea*, bietako bat itzultzeko asmoa izan zuen Txillardegik 1956an, soldadutza egitera joan zenean. «Orduan Koldo Mitxelena esan zidan ezetz, neuk sortu behar nuela zerbait». Mitxelenak bultzaturik idatzi zuen, beraz, Txillardegik *Leturiaren egunkari ezkutua*, bere lehen eleberria eta lehen euskal eleberri existenzialista.

Peru *Leartza*'ko kaleratu zuen ondoren Txillardegik, 1960an, «budismotik gertu» dagoen eleberria, egilearen hitzetan. 1965ean *Huntaz eta hartaz* artikulu bildumaren ondoren, *Elsa Schelen* eleberria argitaratu zuen, 1969an. «Nobela klasikoa egin nahi nuen, eta hain jipoi handia hartu nuen bazter guztietatik, erabaki nuen eleberri gehiago ez idaztea». Hamar urte geroago ar-

Ibon Sarasolaren hitzei erantzun zien Arrietak

DUELA sei hilabete —apirilaren 25ean—, leku berean eta ziklo bereko hitzaldi batean, Ibon Sarasolak Txillardegik euskaltzain ez izendatzeko arrazoi nagusi gisa honek talde batean lan diziplinatua egiteko ez lukeela balio izango aipatu zuen. Sarasolaren ustez, Txillardegik ohorezko euskaltzain izendatzea litzateke egokiena, «berak gustura egingo lukeena egin dezan: izendapen horri uko egin».

Txillardegik ez zien bere hitzaldian Sarasolak esandakoei erantzun, baina, hizlariaren aurkezpena egitean, Joxe Austin Arrietak, Sarasolaren izenik aipatu ere egin gabe, gogoan izan zituen euskaltzain donostiarrak Txillardegiri buruz esandako «txotxolokeriak». Arrietaren ustez, Txillardegik talde lanerako balio handia du, «talde oso batek baino bi, hiru edo hamar aldiz lan gehiago egiteko gauza» baita. «Beste batzuek ere parte hartu izan badute ere», esan zuen Arrietak, «euskara batuaren aita-pontekoak bi pertsona izan dira nire ustez: Koldo Mitxelena eta Txillardegik». Arrietak ez du dudarik egiten beraz: arrazoi politikoengatik baztertu du Euskaltzaindiak Txillardegik.

«Laurdenkatzeko asmorik gabe», Txillardegiren obra lau puntu kardinaletan banatu eta kokatu zuen Arrietak: ekialdean, Txillardegik hizkuntzalaria; hego-ekialdean, Txillardegik soziolinguista; hegoaldean, Txillardegik artista, nobelagilea; eta mendebaldean, «gailurra»: Txillardegik saiakeragilea.

Txillardegiren obraren garrantzia azpimarratuz, Txillardegik «oso Txillar eta Txillar asko» dela esan zuen Arrietak.

gitaratu zuen *Haizeaz bestaldetik*; obra hau, ordea, «ez da nobela bat, gauza metafisikoa baizik».

1988an argitaratutako *Exkida* Txillardegik eleberrigilearen isilune luzearen etena izan zen beraz. Izan ere, *Elsa Schelen*-ez geroztik, hizkuntzalaritzaren edo politikaren ingurukoak izan dira Txillardegiren idazlan gehienak. «Egoera sozio-politikoengatik marjinalismoan bizitzera kondenatuta geundela esaten zuen Rikardo Arregik», azaldu zuen Txillardegik. «Hori hala izan da, orain gauzak aldatzen hasita badaude ere. Denetara ezin iritsita, dena erdipurdi egitera kondenatuta geunden. Politikak eta hizkuntzalaritzak denbora gutxi utzi dit literatura lantzeko, eta hori garbi-garbi aitortzen dut nik» X

Txillardegik:

«Ez zen erraza izan euskararen hautua, 50eko hamarkadan euskara literatur tresna gisa erabiltzea zalantzan jartzen baitzen».

«Elsa Schelen argitaratu nuenean hain jipoi handia hartu nuen bazter guztietatik, erabaki nuen eleberri gehiago ez idaztea».

IRAGARKI MERKEAK (943) 300222

<p>31 x 10 mm</p> <p>EGUN BAT 580 pta/18 l ASTEBETE 2.890 pta/91 l BI ASTE 4.830 pta/154 l HILABETE 7.510 pta/238 l</p>	<p>31 x 15 mm</p> <p>EGUN BAT 1.155 pta/36 l ASTEBETE 5.670 pta/179 l BI ASTE 9.870 pta/315 l HILABETE 13.755 pta/438 l</p>	<p>31 x 33 mm</p>	<p>31x33 MODULO</p> <p>EGUN BAT 2.310 pta/74 l ASTEBETE 11.235 pta/357 l BI ASTE 19.850 pta/630 l HILABETE 27.565 pta/875 l</p>	<p>31 x 33ko BI MODULO</p> <p>EGUN BAT 4.620 pta/147 l ASTEBETE 22.470 pta/714 l BI ASTE 39.690 pta/1.260 l HILABETE 55.125 pta/1.750 l</p>	<p>SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK</p> <p>TF: 908 77 23 47</p>
---	---	-------------------	---	---	--